



PRENTSA-OHARRA

Udalak eta Txantreako Merkatarikari eta Ostalarikaren Elkarteak auzoko merkataritza dinamizatzeko lehen kanpaina bultzatu dute, hainbat jarduera eta promozioekin

Ostiral eta larunbatean musika, puzgarriak, yoga eta lindy hopa egongo dira, eta establezimenduek beste saltoki batzuen txartelak banatuko dituzte ezagutzera emateko

Iruñeko Udalak eta LATXAN Txantreako Merkatarikari eta Ostalarikaren Elkarteak auzoko merkataritza dinamizatzeko lehen kanpaina bultzatu dute. Horretarako jarduera-programa bat abiatuko dute apirilaren 20 eta 21ean (ostirala eta larunbata), eta elkarteko kide diren establezimenduek deskontu-txartelak eta opariak banatuko dituzte. *Nortasuna duen merkataritza eta ostalaritza* kanpainaren xehetasun guztiak gaur goizean aurkeztu dituzte Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi ordezkari Patricia Peralesek eta joan den urte amaieran eratu eta jada 59 kide dituen Txantreako Merkatarikari eta Ostalarikaren Elkarteko ordezkari Juantxo Beak.

Ekimen horren xedea da Txantrea biziberritzea eta lo egiteko auzo bat bilakatzea ekidin. Izan ere, azken urteotan, hainbat denda eta taberna itxi dira. Denda txikiek eta ostalaritza-establezimenduek kaleari bizitza ematen diote eta dinamizatzen dute, eta auzotarren arteko harremanei bide ematen dieten guneak eskaintzen dituzte. Horregatik, elkarteak ekintzen bidez gertuko merkataritza balioetsi nahi du, eta auzoan dauden establezimenduak ezagutzera eman. Izan ere, auzotarrak oinez heldu daitezke horietara, autorik zein villavesarik erabili beharrik gabe, eta hori erosoagoa eta jasangarriagoa da. Halaber, negozio horietan lan egiten dutenek eskaintzen duten gertuko tratu atsegina eta pertsonalizatua nabarmendu nahi dute, eta auzotar zein kolektiboekin batera lan egin nahi dute, Txantreak auzo bizi bat izaten jarrai dezan. Kanpaina ezagutzera emateko, auzotarrak auzoko establezimenduetan kontsumitzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko –komunitatea indartzen baitu–, eta elkarteko kide diren saltokiak non dauden jakinarazteko plano bat duen diptiko bat argitaratu da.

Jarduerak auzoko hiru tokitan

Jarduerak Txantreako jaiak hasi aurreko asteburuan egingo dira: apirilaren 20an hasiko dira, ostiralarik, 17:00etan, Federico Soto plazan haurrentzako puzgarriak paratuta. 19:30ak arte egongo dira zabalik. Bi ordu eta erdi horietan zehar, aurpegiak margotzeko aukera ere egongo da, Siñarzubiren eskutik. Halaber, Federico Soto plazan eskola ireki bat antolatu da,

1. orrialdea, (e)tik 4



familiartean yoga egiteko. Goizane Ardanaz izango da irakaslea, elebitan arituko da, eta interesa dutenek estera besterik ez dute eraman beharko.

Apirilaren 21ean, larunbatarekin, jarduera-programaren barruan, Grupo Solidario Club Irubide taldeak jota, ranchera eta habanera kontzertua eskainiko du, Fermín Daoiz kalean, 11:30etik 13:30era. Euria eginez gero errezitaldia San Cristobal Erretiratuen Klubean izango da. Egun horretan bertan, arratsalde, Euskara plazan, 17:00etatik 19:30era, lindy hop eskola irekia egingo da, Bettina Oyhenarten eskutik.

Promozioak deskontuekin eta edariak doan

Auzoko denden eta tabernen eskaintza zabala ezagutzera emateko asmoarekin, LATXANek antolatutako merkataritza dinamizatzeko kanpainak promozioak eskainiko ditu deskontuekin eta doako edariekin. Hori horrela, dende deskontu-txartelak banatuko dituzte, eta tabernek edariak doan eskuratzekoak.

Txartelak itxita banatuko dira, eta irekitzerakoan ikusiko da txartel bakoitzean jasota dagoena: establezimendu jakin batean deskontua edo edaria doan. Establezimenduen bezeroen artean banatuko dira txartelak, eta denda bakoitzak elkarteko kide diren gainontzeko establezimenduetako txartelak banatuko ditu, halako moduan non kontsumitzaileek beste saltoki batzuk ezagutuko baitituzte, ohiko dituzten horiez gain. Txartel-banaketa aste honetan hasiko da, eta apirilaren 26ra bitarte trukatu ahalko dira. LATXANeko kide diren taberna eta saltoki ia denek parte hartzen dute kanpaina. Ekintza honen bidez establezimendu bakoitzak gainontzekoak ezagutzera ematen eta dinamizatzen laguntzen du, eta LATXAN eratzen lagundu zuen elkarlan-espirituaren erakusgarri izan nahi du.

JARDUEREN PROGRAMAZIOA

- **Apirilak 20, ostirala. Federico Soto plaza**
 - 17:00 – 19:30. Puzgarriak
 - 17:00 – 19:30. Aurpegi-margotzea, Siñarzubiren eskutik
 - 18:00 – 19:30. Yoga familiartean, irekia, elebitan, Goizane Ardanazen eskutik. Estera besterik ez da eraman behar
- **Apirilak 21, larunbata. Fermín Daoiz kalea**
 - 11:30 – 13:30. Grupo Solidario Club Irubide taldearen kontzertua: jotak, rancherak eta habanerak. (Euria eginez gero errezitaldia San Cristobal Erretiratuen Klubean izango da)
- **Apirilak 21, larunbata. Euskara plaza**
 - 17:00 – 19:30. Lindy hop eskola irekia, Bettina Oyhenarten eskutik



LATXAN TXANTREAKO MERKATARI ETA OSTALARIEN ELKARTEA

- ARCHEL MODA. Gares plaza, 16
- ASIER SESMA PELUQUERÍA CABALLERO/ BARBERÍA. Gares plaza, 6
- BAR BENTXI. Ezkaba plaza, 38
- BAR CASTILLO. Miravalles k., 8
- BAR DEPORTIVO. Iruñerria k., 46
- BAR ERRI BERRI. Atarrabiako etorb., 88
- BAR EZKABA. Ezkaba plaza
- BAR MIRLO. Villafranca k., 6
- BAR NILO. Ezkaba plaza
- BAR ONA TX. San Kristobal k., 29
- BIDEKIDE IKATETXEA. Iruñerria k., 53
- BIOTZA BELARDENDA. San Kristobal k., 10
- CAFE BAR JAVIER. Fermín Daoiz k., 2
- CAFETERÍA ROSAURA. Villafranca k., 14
- CARNICERÍA GIRONÉS. Ezkaba plaza, 11
- CARPINTERIA BORAD. Villafranca k., 9
- CENTRO CLINICO ANSOAIN DOGOS. Aita Adoain k., 223
- CENTRO OPTICO AUDITIVO PEDRO DUC. San Kristobal k., 10
- CICLOS RUIZ. Mendigorria k., 21
- ELECTRODOMESTICOS BEA HNOS. SL. Atarrabiako etorb., 88
- ERAGIN.COM. Artaxoa k., 22 altua
- EUNTZE TABERNA. Federico Soto pasealekua, 11
- EZPELDI LORADENDA. Federico Soto pasealekua, 6
- FARMACIA C.FERNANDEZ MENCIA. Ezkaba plaza, 13
- FARMACIA CRISTINA HERNÁNDEZ GONZÁLEZ. Sabicas Gitarra-jotzailearen plaza, 3
- FARMACIA LDA. LAURA MARTINEZ SUBIZA. Gares plaza, 12
- FERRETERÍA MARTINEZ. Atarrabiako etorb., 8
- FOTO STUDIO AVENIDA. Atarrabiako etorb., 51
- FRUTAS EMI. Atarrabiako etorb., 47
- FRUTERIA MIRÓ. Villafranca k., 5



- HERBORISTERÍA ARANZAZU. Iruñerria k., 49 (atz.)
- IRUCALZADOS. San Kristobal k., 14
- KM.ZERO HARATEGIA. Ororbia k., 10
- KRASKATU. Valtierra k., 12
- MERCERÍA CONCHI. Ezkaba plaza, 11
- MERCERÍA IZCUE. Doneztebe k., 8
- OGI BERRI TXANTREA. Kaskalleta k., 2
- OPTICA AVENIDA/ GESOP AVENIDA SLU. Atarrabiako etorb., 47 A
- PANADERÍA BELEN. Gares plaza, 23
- PASARELA DE LA MAGDALENA. Miranda-Arga k., 49 (atz.)
- PASKALCOCINAS SL. Villafranca k., 18
- PASTELERÍA MIRAVALLES. Miravalles k., 17
- PELUQUERIA ELIDE. Arriurdiñeta plaza, 1
- PELUQUERIA ENTREPEINES. Atarrabiako etorb., 49
- PELUQUERÍA ILEAK. Gares plaza, 1
- PELUQUERÍA MILA SASTRE. Kaskalleta k., 3
- PESCADERÍA JUANA MARY. Gares plaza, 17
- PESCADERÍA MENDIGORRIA. Mendigorria k., 14
- PIN UP SALOON. Txantreako plaza, 2
- SALÓN DE BELLEZA ENEIS. Azotz k., 6
- SISTEMAS DIGITALES IRUÑA SL. Fermín Daoiz k., 1
- STEFY ESTILISTA. Iruñerria k., 43
- TABERNA HARPEA. Arriurdiñeta plaza, 2-3
- TABERNA MAGDALENA. Gares plaza, 9
- TABERNA TXANTREA. Iruñerria k., 46
- VIAJES DIVERTIS. Iruñerria k., 51
- ZAZPI OKINDEGIA. Miravalles k., 9
- ZIRIPOT TABERNA. Ezkaba plaza
- BAR TRAPALA. San Kristobal k., 6

Iruñean, 2018ko apirilaren 18an 2018

